



**LEGAZPIKO  
UDALA**



Bat egjirik. hazten goaz

**E S E P**  
**Euskara Sustatzeko Ekintza Plana**  
**Plan Estrategikoa**  
**2018 – 2022**



**LEGAZPIKO  
UDALA**



## **SARRERA**

Legazpiko Udalak joan den 2005ean onartu zuen herrian Euskara Biziberritzeko lehen Euskara Plana. Ondoren, izena aldatu eta 2012an Euskararen Aholku Batzordeak egindako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) oinarri hartuz, 2014-2017 aldirako Legazpira egokitutako ESEPa onartu eta garatu du. Hori amaitu ondoren, 2018-2022 bost urtekorako ekintza plan berria egin beharra du.

Aurreko planaren ebaluaziotik abiatuta, Euskararen Aholku Batzordeak 2016an argitaratutako *ESEP udalerrietan: 2014-2015eko jardueren bilduma* liburua lagungarri hartuta eta Legazpiko Euskara Lantaldean jasotako ideiak gogoan izanda prestatu du hurrengo bost urteetara begirako plan hau. Plana egingarria eta errealista da, udalaren ahalmenaren arabera pentsatua, Legazpiko udalak dituen baliabideak ez baitira mugagabeak. Ekintzak diseinatzeko minimo batzuk ezarri dira, eta ekintza xumeak direla ematen badu ere, helburu argi eta lorgarriak ditu, azken batean, bermatu nahi da ezarritako neurriak bete egingo direla.

Planak hurrengo bost urteetarako jardunbidea markatzen du, hau da, ditugun mugak kontuan izanda, zein arlotan lan egingo dugun euskararen erabilera sustatzeko, besterik ez. Plana, beraz, ez da mugarri izango aurrerago etor litezkeen egoera berriei aurre egiterako orduan, eta zentzu horretan, malgua da, zabala. Aurrerantzean, herriko elkarte eta taldeek eta Euskararen Lantaldeko kideek ekarpenak egin ahalko dizkiote, horrela errazago lortuko baita euskarak gero eta presentzia handiagoa izan dezan Legazpin.

## **EGOERA**

Soziolinguistika Klusterraren 2011ko ezagutza datuen arabera, biztanleen % 57a da euskalduna eta % 21a ia-euskalduna. Euskararen ezagutzaren datuak gora egin du 1986an neurketak egiten hasi zirenetik, orduan % 46a besterik ez zen euskalduna. Euskararen ezagutza maila altuena 35 urtetik beherakoek dute, haien artean % 80a euskalduna baita.

Ezagutza datu horiek baino okerragoak dira erabilera datuak. Soziolinguistika Klusterrak 2016an egindako kale-neurketako datuena arabera, %32,9koa da euskararen erabilera kalean. Azken bost urteetan gora egin du, 2011an erabilera 27,1ekoa baitzen.

Datu hauek erakusten dute ia hiru legazpiarretatik bi euskaldunak direla, baina, aldi berean, Legazpin hiru elkarrizketatik bakarra izaten dela euskaraz. Legazpiarrek, beraz, dakitena baino euskara gutxiago erabiltzen dute.

## PLANAREN HELBURUAK

ESEParen helburu nagusia honakoa da: ezagutzaren eta erabileraren artean dagoen alde nabaria murrizteko bidean, euskararen erabilera indartzea. Hots, euskaraz bizi nahi duen herritarrari, horretarako aukerak bermatzen dizkion neurri eta tresnak erabaki eta bultzatzea. Hizkuntza normalizazioaren plan estrategikoa da; hizkuntza-politika egiten diharduten herri-aginteei euren jardunean lagunduko dien oinarrizko tresna.

Plana, hiru helburu estrategikoren inguruan antolatuta dago. Bat, ezinbestez, helburu nagusia baita, euskararen erabilera izango da. Erabilerarekin batera jabekuntzak eta elikadurak osatzen dute helburuen atala. Aipatu helburu estrategiko bakoitzak eragin-esparruak ere zehaztuta dauzka honako taulan ikus daitekeenez:

<b>HELBURU ESTRATEGIKOAK</b>	<b>ESPARRUAK</b>
<b>EUSKARAREN JABEKUNTZA</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Familia bidezko transmisioa</li> <li>2. Irakaskuntza</li> <li>3. Euskalduntze-alfabetatzea</li> </ol>
<b>EUSKARAREN ERABILERA</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>4. Administrazioa</li> <li>5. Gune geografiko euskaldunenak</li> <li>6. Arlo sozio-ekonomikoa</li> <li>7. Aisia eta kirola</li> </ol>
<b>EUSKARAREN ELIKADURA</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>8. Liburugintza</li> <li>9. Kulturgintza</li> <li>10. Publizitatea</li> <li>11. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea</li> <li>12. Hedabideak</li> <li>13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak</li> </ol>

## EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA

Esparruak

Neurriak

### 1. Familia bidezko transmisioa

1.1. Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea

1.3. Familia barruan euskararen erabilera sustatzea

### 2. Irakaskuntza

2.4. Euskararen erabilera soziala hezkuntza esparruan aztertu eta bultzatzea

2.5. Ikastetxearen eta haren ingurune hurbilaren arteko euskarazko harremanak sustatzea

2.6. Ikasle etorkinak euskarara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea

### 3. Euskalduntze eta alfabetatzea

3.1. Orain arte lortutako emaitzen analisia egitea

3.3. Finantzazio sistema egonkor bat ahalbidetuko duten aukerak landu eta abian jartzea

3.4. Elebitasun pasiboa helduen munduan eta gutxieneko helburutzat areagotzea eta prestigiatzea

3.5. Egungo euskalduntze curriculumak Europako Erreferentzia Marko Bateratura egokitzeko eta Marko Bateratua bera euskarara egokitzeko bideak aztertu eta garatzea

3.6. Euskara gaitasuna egiaztatzeko azterketa sistemaren inguruko hausnarketa egin eta hobekuntzak praktikara eramatea

3.7. Helduen euskalduntzearen kalitate-irizpideak adostu eta finkatzea

3.8. Gelaz kanpoko egitasmoak sustatzea, erabilera eta praktika uztartuko dituztenak

3.9. Etorkinak euskarara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea

#### 4. Administrazioa

4.1. Administrazioan euskararen erabilera sustatu eta bermatzea

4.2. Euskara ere lan hizkuntza izateko neurriak hartzea

4.4. Hizkuntzak erabiltzeko irizpideak finkatzea

4.5. Administrazioen arteko elkarlana areagotzea

4.6. Kanpoko komunikazioan euskararen erabilera gehitzea

#### 5. Gune geografiko euskaldunenak

5.2. Euskara herritarren lehen hizkuntza gisa eta hizkuntza natural gisa sendotzeko lagungarri izango diren ekimenak garatzea

#### 6. Arlo sozio-ekonomikoa

6.1. Euskara planak zabaltzeko babesa eta laguntza ematen jarraitzea eta diru-laguntzen sistema etengabe hobetzea

6.3. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatzeko neurriak hartzea

6.4. Enpresen jardunean hizkuntza-irizpideak ezartzeko pausoak ematea

6.7. Euskararen presentzia eta erabilera egiaztatzeko sistema hedatzea

6.8. Euskara enpresa munduan erabiltzeari prestigioa ematea

#### 7. Aisia eta kirola

7.1. Aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea

7.2. Begiraleen prestakuntza sendotzea

7.3. Aisialdiko ekimenetan erabiltzen den euskararen kalitatea zaintzea

7.4. Euskararen erabilera bultzatuko duten ekimenak antolatu eta baliabideak optimizatzea

7.8. Kirolaren esparruko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera sendotzea



## 8. Liburugintza

8.1. Irakurzaletasuna bultzatzea

## 9. Kulturgintza

9.1. Euskarazko kulturaren kontsumoa bultzatzea

9.2. Euskarazko sorkuntza sustatzeko neurriak hartzea

9.4. Euskarazko kultura produktuen zabalkunde egokia egitea

## 10. Publizitatea

10.2. Herri-administrazioen euskarazko publizitatea hedabideetan argitaratzea

## 11. Corpus plangintza eta euskararen kalitatea

11.3. EAeko toponimia eguneratu, osatu, ofizializatu eta zabaltzea

11.5. Adierazkortasuna zaindu eta indartzeko neurriak hartzea

11.6. Euskararen kalitatea zaintzea

## 12. Hedabideak

12.2. Euskarazko hedabideen garapen iraunkorra ahalbidetzeko neurriak hartzea

12.7. Hedabideetako hizkuntzaren kalitatea bermatzea

## 13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

13.1. Euskarazko baliabide teknologikoen gaineko informazioa bateratu eta zabaltzea

## 14. Sentsibilizazioa eta motibazioa

14.1. Euskara balio positiboekin eta modernitatearekin lotzeko ekimenak garatzea

14.2. Familia transmisioa

14.3. Irakaskuntza



14.4. Euskalduntze-alfabetatzea

14.5. Administrazioa

14.6. Arlo sozioekonomikoa

14.7. Aisia eta kirola

14.8. Liburugintza

14.9. Kulturgintza

14.10. Hedabideak eta publizitatea

14.11. Teknologia berriak

## 15. Barruko proiektzioa

15.1. Euskararen irudi positiboa indartzea

15.2. Hizkuntza paisaia euskalduntzea gune euskaldunenetan, hiriburuetan eta baita gune jendetsuetan ere

15.3. Erakundeen arteko elkarlanean aritzea euskararen barruko proiektzioa bul-tzatzeko

15.4. Hizkuntzarekin zein kulturarekin zerikusia duten foroetan parte-hartzea

15.5. Euskara eta euskarazko kultura ezagutaraztera bideratutako ekitaldi eta ikuskizunak diseinatzea

15.6. Elebitasun pasiboa areagotzea eta prestigiatzea

## 17. Bestelakoak

17.1. ESEPen kokatzen ez diren bestelako gastu orokorrak, diru-laguntzak eta egitasmoak

Legazpin, 2018ko otsailean.